

Ainhoa Salegi: “Produktu teknologiko berritzailetan egindako inbertsioa ez da behar bezala baloratzen gipuzkoan”

Usurbilen dagoen Eleka enpresa, Elhuyarrek eta Euskal Herriko Unibertsitateko Ixa Taldeak bat egin ondoren sortu zen. Ingeniaritza linguistikoko proiektuak abian jartzen ditu. Gaur egun zortzi langile dituen enpresa hau duela ia hiru urte sortu zen eta, denbora horretan, Kutxa, BBK, Habe edo Bizkaiko Foru Aldundia bezalako erakundeentzat lan egin du. Gaur egun, gaztelanatik katalan, gailego eta euskarara automatikoki itzultzeko sistema garatzeko estatu-mailan burutzen ari diren proiektu baten buru da. Ainhoa Salegi, Eleka zuzendaritza taldeko kideak honako hau azaldu digu: *“Espainian ekimen ait-zindaria da, eta oso garrantzitsua da guretzat bertako buru izatea, bertan ingeniari linguistikokoaren esparruan erreferentzia diren Universitat d`Alacant, UPC (Bartzelonako Unibertsitate Politeknikoa) edo Vigoko Unibertsitatea bezalakoek parte hartzen dutelako”*.



Ainhoa Salegi.

Baina, zehatz-mehatz, zer da ingeniari linguistikoa?. Bere garaian Eleka abian jartzeaz arduratu zen Josu Waliño Elhuyar Fundazioko proiektuen zuzendariak adierazi du, funtsean, diziplina honek ondoren aipatuko ditugun gai guztiak barne hartzen dituela: *“Lengoiari aplikatu-*

“Enpresa teknologikoetan inbertitzeko tradizioa falta da”



tako informatika. Itzultzaile automatikoak, zuzentzaile ortografikoak, Interneteko bilatzaileak eta ahotza sintetizatzeko programak dira, besteak beste, ingeniaritza linguistikoko tekniketan oinarrituta diseinatutako produktu ezagunenetakoak".

- Zergatik jarri zenuten Eleka bezalako enpresa bat abian?

- 2000. urtean Eleka sortzeko -azaldu du Josu Waliñok-, bi gauza eman ziren. Urte hartan, Elhuyar Fundazioan I+G atala abian jarri nahi genuen, egiten ari ginen hainbat lanetan, guk ez genituen zenbait tresna behar genituelako. Tresna horiek garatzeko asmoz, Euskal Herriko Unibertsitateko Ixa Taldearekin jarri ginen harremanetan. Laborde Saria irabazi berri zuen Ixa Taldea une horretan ingeniaritza linguistikoko enpresa abian jartzeko aukera aztertzen ari zen, negozioaren alderdi enpresarialarekin zailtasun handiak bazituzten ere. Elhuyar Fundazioak arlo horretan lagundu zezakeela ikusita, bion artean, eta Bic Berrilan-en laguntzarekin, Eleka sortzea erabaki genuen.

Josu Waliño.



Hala izan zen, bi erakundeek berehala ikusi zuten elkarren artean lan egin zezaketela. EHUko Informatika Fakultateko Ixa Taldeak, 13 urte baino gehiago daramatza ingeniaritza linguis-



tikoaren arloan ikerketa-lanak egiten, premia dokumental eta linguistiko jakinei aurre egiteko teknologiak eta soluzioak garatuz. Denbora horretan Ixa-k hainbat produktu egin zituen, adibidez, "Xuxen" (Word-en barruko euskarazko zuzentzaile ortografikoa), lematizazioan oinarritutako Interneteko bilatzaileak edo lexi-

kografiatik telefonia mugikorretaraino zihoazen arloak barne hartzen zituzten tresna linguistikoak. Bestalde, Elhuyar Fundazioak, linguistikaren esparruan hogeita hamar urte lan egin ondoren esperientzia zabala du, aholkularitza-zerbitzuak eskainiz eta produktuak formatu elektronikoan argitaratuz, hiztegi eleanitz eta hiztegi terminologikoak egin baititu.

Josu Waliño Eleka ereduaren sustatzaileak, enpresaren lehen hilabeteak honela definitzen ditu: *"lañotasun-garaia bezala". "Enpre-sa abian jartzeko bagenuen bezeroren bat eta enpresa garrantzitsuen hainbat eskaera jaso genituen. Horrek, negozioaren errealitatea ikusten eragotzi zigun, negozioa, errealitateak erakutsi ziguna baino errazagoa izango zela iruditu baitzitzaigun. Garai gogorak ondoren heldu ziren, bigarren urtetik aurrera".*

- Enpresa abian jartzeko zein zailtasun aurkitu zenituzten?

- *Zaila zen -adierazi du Waliñok-, eta zaila izaten jarraitzen du gure enpresa proiektua bezeroei transmititzea. Teknologiaren arloan enpresa berritzaileetan inbertitzeko tradiziozik ez dago. Merkatua zaila da jendeak ez duelako hitzen eta informazioaren garrantzi ekonomikoa baloratze-ko ohitura. Gure zerbitzuak eskura ditzaketen enpresek sakonean aztertu ez duten kontzeptu berria da. Ezagutzera ematea eta zer egiten ari garen merkatuak ulertzea ez dira bigarren mailako kontuak, gure tresnak oso baliagarriak izan daitezkeelako gure bezeroen produkzio-prozesuak hobetzeko.*

- *Zaila da honelako negozioa abian jartzea -erantsi du Ainhoa Salegik-, Gipuzkoa edo Euskal Autonomia Erkidegoa bezalako lurraldean industria-*

***“Administrazioa
Elekarentzat,
laguntzen
emaile baino
gehiago
bezeroa da”***

enpresaburuek, teknologiaren ikuspegitik, produktu edo zerbitzu berritzaileetan inbertitzeari hainbeste balio ematen ez diotelako.

- Konpainia abian jarri zenutenean, zailtasunak izan al zenituzten ingeniari-tza linguistikoko adituak aurkitzen?

- Ez genun lan handiegirik izan Eleka abian jartzeko behar ziren pertsonak aurkitzen, Ixa Taldea proiektuan sartuta zegoelako. Hala ere aitortu behar da Elekako giza taldea oso ezaugarri espezifikoak dituzten profesionalak osatzen dutela. Enpresak, ezagutza linguistikoak dituzten informatikari onak behar ditu eta, era berean, informatika ezagutzen duten linguistak behar ditu. Bi arloak ezagutu behar dituzten pertsonak behar dira.



“Ekintzaile gisa esperientzia, oso pozgarria bada ere, oso gogorra da”

Konpainiaren eguneroko zuzendaritzari dagokionean, Ainhoa Salegik aipatu du, bertako langileek hain ezaugarri profesional espezifikoak izateak ez duela kudeatzeko elementu berezirik ekartzen; hala ere, bere iritziz, Eleka bezalako enpresa baten administrazio ekonomikoak eta finantzarioak, laneko denborak arreta bereziarekin antolatu beharra eskatzen du. *“Adibidez, epe labur eta luzeko proiektuak bateratu behar dira, enpresan beti baliabideak izateko eta enpresa bera Administrazioak noiz ordainduko zain ez egoteko, denbora luzez zatitan ordaindu baitezake”.*

“Gure bezero-tipoa Administrazioa izateak, hainbat arazo sorrarazi dizkigu”, azpimarratu du Josu Waliñok. “Administrazioarentzako lan egiteak eragiten du kobratzeko epeak ez direla egokiak enpresaren eguneroko funtzionamendurako. Egia da Administrazioa, ordaintzeko garaian, bezero onenetakoa dela, baina egia da ere, askotan ez dakizula noiz

ordainduko duten. Enpresa sortu berri batentzako, funtzionatzeko modu hori oztopo handia da".

- Ba al dago euskal enpresaburuen klasearen tokia hartzen ari den ekintzaile-belaunaldi berria?

- Nik hala uste dut - irmo erantzun du Ainhoa Salegik-. Herri honetan betitik izan den enpresaburuaren klasearen lekua hartzen ari den gazte-sustatzaileen belaunaldi berria dator teknologia berrien esparrutik. Askotan, mota honetako enpresak abian jartzen errazagoa delako. Beti errazagoa da 3.000 euroekin abian jar dezakezun konpainia sortzea, adibidez makinetan inbertsio handiak egin behar dituzun industria-enpresa muntatzea baino. Beste gauza da, aurrerago, oinarri teknologikoko enpresa-mota hau mantendu eta kontsolidatzea, askotan zailagoa izatea.

- Eleka merkaturatu zenean, garrantzitsuak izan al ziren enpresa-proiektu berriak abian jartzeko Administrazioak eskainitako laguntzak?

- Administrazioa guretzat, laguntzen emaile baino gehiago, bezeroa da -erantzun du Josu Waliñok-. Halaber kontuan izan behar da zein Administrazio motari buruz ari garen hizketan; adibidez, Aldundiak beزالako erakundeek, lurralde batean asko baloratzen dituzte gure zerbitzuak, baina besteetan ez. Enpresei zuzendutako laguntzei dagokienean, guk ez dugu laguntzarik jaso, bere garaian Bic Berrilanekek eman zigun laguntza garrantzitsua alde batera uzten badugu.

- Enpresa martxan jarri ondoren, zein zailtasun nagusi sortzen dira konpainia kudeatzean?

- Bezero berriak lortu eta, gure garapen teknologikoek euren produktu edo zerbitzuei balio erantsi garrantzitsua ematen dietela bezeroei transmititzeaz gain -azaldu



du Josu Waliñok-, gureak bezalako teknologiak garatzeko beharrezko kapitala lortzeko zailtasuna dugu.

Ainhoa Salegik esan digu, Elekak une honetan hainbat produktu garrantzitsu dituela merkatuan: zuzentzeko sistemak; zaintza teknologikorako produktuak; itzultzen laguntzeko programak; lematizazio eta lexikografian laguntzeko tresnak; indekzio automatikoa eta web orrietatik informazioa ateratzeko zerbitzuak. *"Dena den, Elekaren gaur egungo proiektu nagusia,*

gaztelaniatik katalanera, euskarara eta gailegora itzultzeko sistema automatikoa garatzeko, estatuko ingeniari-tza linguistikoan I+Gko erakunde nagusien laguntzarekin (UPC, Alacanteko Unibertsitatea, Vigoko Unibertsitatea, eta abar) burutzen ari garen lana da".



- Elekako zuzendaritza-taldeko kide gisa, Ainhoa Salegik zein kezka nagusi ditu egunero bere bulegora joaten denean?

- Epeak betetzea eta, batez ere, proiektuak, bezeroak espero duenari erantzutea. Ezin du, edozein aldaketa txiki egitean ezertarako balio ez duen garapen teknologikoa izan.

- Ingeniaritza linguistikoa bezalako hain merkatu zaila eta mugatua, zein egoeratan dago gaur egun Eleka?

- Eleka, oraindik, finkatzeko fasean dago -erantzun du Ainhoa Salegik. Lehen urteak nahiko gorabeheratsuak izan dira eta une honetan finkatzen hasi behar dugu. Orain, batez ere, enpresa mantendu nahi dugu, merkatua egin, bezero berriak lortu eta baditugunak sendotu. Produktuen arloan, beharbada, gure ikerketa-lana hitz egitearen teknologietarantz zuzenduko dugu.





- Denborak ematen duen ikuspegitik, Josu Waliñok zer pentsatzen du ekintzaile gisa duen esperientziari buruz?

- Ni, ezohiko ekintzailea naiz. Nire burua ez dut ekintzailatzat, niri, Elhuyar Fundazioak Eleka abian jartzeko agindu baitzidan, beste edozein lan balitz bezala. Ez zen nire erabakia izan, ez zen ekintzaile baten ohiko proiektua. Dena den, eta nire historia berezia bada ere, oso esperientzia gogorra iruditu zait, oso gogorra. Edozein ikuspuntutik, nire bizitza profesionalean egin dudana gauza zailena izan da. Enpresa bat sortzeak buru-hauste ugari ekartzen ditu, neke handia, eta gauzek funtziona dezaten izugarritzko ahalegina egin behar da. Aldi berean, ilusio handia sortzen du. Elekak bere kudeaketa taldea duen arren eta nik Elhuyarren beste lanekin jarraitu badut ere, Eleka, nire seme kuttun bezala dut oraindik.

“Gauza gutxi daude, zure enpresa-proiektua aurrera doala ikustea bezain ederrak”

- Zer esango zenioke enpresa bat abian jartzeko asmoa duen norbaiti?

- Gauzak kontu handiz aztertzeko. Jakin behar duzu merkatuan lekua egin nahi baduzu, jende askoren aurrean erantzun behar duzula: zure langileen aurrean, bezeroen aurrean, zuek zuek konfiantza jarri duten guztien aurrean eta zure familiaren aurrean. Zailtasun askori aurre egin beharko diezu, eta gauza askori uko egin, baita arlo pertsonalean ere. Enpresa abian jartzen duzun unetik, lehen hiru urtetan gutxienez, zure kezka eta helburu bakarra enpresa da. Dena den, esan behar dut gauza gutxi daudela zure enpresa-proiektua aurrera doala ikustea bezain ederrak.

- Nik erantsiko nuke -zehaztu du Ainhoa Salegik- ekintzaileak ezin duela hasieratik guztia planifikatua izan. Proiektua sakon aztertu behar da, negozio-plan egokia egin behar da, enpresa-diseinuaren xehetasun guztiak ondo aztertu, eta merkatuan zer dagoen eta zer falta den ondo ezagutu behar da; baina gainera, aitortu behar da beti arrisku bat egongo dela, eta hori ezin da saihestu.

"Dena den", erantsi du Josu Waliñok, "adierazi behar da, pertsona batek abian jartzen ari den produktuan edo zerbitzuan sines-ten badu, bere burua ekintzaile gisa ikusten badu, eta horretan buru-belarri murgiltzen bada, zalantzarik gabe enpresa aurrera aterako dela."



Tokia: Usurbil

Web orria: www.eleka.net

Sorrera-urtea: 2002

Langileak: 6

Jarduera Nagusia: teknologia linguistiko-aren inguruko ingeniari-tza eta ikerketa (testu-zuzentzaileak, itzultzen laguntzeko tresnak, katalogatzea eta multimedia bilaketa, itzulpen automatikoa, zaintza teknologikoa).

Produktu Nagusiak: "plug-in", izenekoen garapena, lexikografiako laguntza-tresnak, testu-zuzentzaileak, indexazio auto-matikoa, itzultzen laguntzeko tresnak.

Tlfn: 943377225

Fax: 943365923

E-mail: info@eleka.net

Web: www.eleka.net

Helbidea: Zelai Haundi Kalea, 3. Osinalde Industrialdea. 20170 Usurbil.

Harremana: Ainhoa Salegi